

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

12/2019 Mozioa, otsailaren 13koa, Nerbioigoieneko saneamendu-sistemaren gauzapena ez betetzeari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko otsailaren 13an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

12/2019 Mozioa, otsailaren 13koa, Nerbioigoieneko saneamendu-sistemaren gauzapena ez betetzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek berriz ere salatzen dute Nerbioigoieneko saneamenduaren lanen exekuzioak duen atzerapena eta ez betetzea, eta Estatuko Gobernuari eskatzen diote berehala exekutatu ditzala Nerbioigoieneko sistemako araztegien eta kolektoreen lanak, 2017ko eta 2018ko aurrekontu-akordioak betez.

2. Arabako Batzar Nagusiek salatu egiten dute Espainiako Gobernuak Nerbioigoieneko saneamenduari ekiteko erakutsi duen utzikeria eta borondaterik eza; urte luzez atzerapenak eta ez betetzeak kateatu ondoren, segitzen du esaten proiektu horren exekuzioa Estatuko Aurrekontu orokorrak onartzearen mende dagoela.

3. Arabako Batzar Nagusiek eskatzen diete Nerbioigoieneko saneamendu-sistemak egokitzeko lanetan inplikaturik dauden administrazio guztiei ezen, norik bere eskumeneren esparruan, modu koordinatuan eta lankidetzan estuan lan egin dezatela gaingaitu beharreko izapide guztien ebazpenean eta bitartekaritzan, bai lursailak eskuratzeko bai lanen exekuzioa gauzatzeko. Hala, erdietsi ahal izango dira planifikatutako exekuzio-epeak eta -helburuak, lanak aurreikusitako datetan burutuz.

4. Arabako Batzar Nagusiek mozio hau helaraziko diote Trantsizio Ekologikoko Ministerioari eta Eusko Jaurlaritzari.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 13a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA